

Ziortza

La Colegiata de Ziortza (esp. Cenarruza) ha tenido un pasado doblemente singular, por el lugar que ocupó en la historia de Bizkaia y por el carácter canónico de la Comunidad que vivió en ella. En los años de la Exclaustración las edificaciones sufrieron el deterioro consiguiente, que el incendio agravó más aún (1954). Hoy, con la restauración parcial llevada a cabo, ha sido posible la presencia de la Comunidad cisterciense que llegó de La Oliva.

Aurreko batean ikusi genuen bezala (Arantzazu, 2007ko azaroan), San Agustinen Erregelak arrakasta handia izan zuen Euskal Herrian, segur aski izaera sozial eta erlijioso ezberdinetara malgutasunez moldatzen zelako. Batez ere Berant Erdi Aroko emakumezkoen artean gertatu zen hori, baina gizonezkoen zenbait eliz elkartek ere hartu zuen Erregela agustindarra gidaritzat. Modu berezian, Gotzainen inguruko Katedralako kalonjeen biziera antolatzeke balio izan zuen Erregela horrek (Iruñea edo Orreagan, adibidez).

Hori bera gertatu zen Ziortzako Kolegiata-ekin.

Ziortzako Kolegiata (1379)

Bizkaia, nolabait esateko, Gotzainik gabeko Jaurerria izan zen, izan ere bertako eliz egituren gobernu Jaurerriko lurraldetik kanpo egon zen mendeluzetan (Armentia, Kalahorra, Burgos, Santander...), harik eta Bilboko Diozesa sortu zen arte (1950). Ezaguna da, bestalde, bizkaitarrek bazutela erbeste haietako Gotzainekiko halako mesfidantza bat eta ez zirela bertako agintariak eta gizarteko interesatuenak ere Gotzainak Jaurerrian esku hartzearen aldekoak. Lurraldeko eliz egiturari bere harri giltzarria falta zitzaion.

Gotzaindegirik ez, Katedralako Kabildorik ez, eta Ziortzako Kolegiata hau izan zen Jaurerriko eliz erakunde jasoena, bere kalonje eta guzti.

Hasieran, Bolibar-eko udalerrian dagoen Ziortza ez zen sortu Kolegiata bezala, herritarrek hobetsitako elizxume bezala baizik. Legendak nahi duenez, 968an hasten da Ziortzaren historia, abuztuko Andre Mariaren egunean, hain zuzen: Gerrikaizko Sta. Luzia elizako hileritik arrano batek buru-hezur bat hartu eta Ziortzan erortzen utzi zuenetik. Miraria izan omen zen hori, eta hilerri osoa eraman zuten, azkenik, muino hartara, eta herritarrek aparteko jaiera erakutsi zioten Ziortzako eliza apal hari.

Kolegiataren historia askoz geroagokoa dugu, XIV. mendetik honakoa.

Ziortzako abadetxea 1379an bihurtu zen Kolegiata, eta bertako lehen Abade apaiza Pedro Mz. Markinako izan zen. Ez lehenago eta ez gero izan ziren beti apaizak Ziortzako Abadeak, bertako elizaren gain zaingo laikoak bere eskumenak baitzuten izendapen haietan. Egoera horrek bere auziak ekarriko zituen ondoko gizaldietan.

Eliza Kolegiata egin zenean, garrantziko erabakien ondorioa izan zen hori. Eliz zaingoa zutenek (eta jabetasuna, noski) beren eskubide eta jabetzak utzi behar izan zizkieten Kole-



giatari kleriko-kalonjeak jartzearen truke. Hor-taz, elizgizonen izaera berria aldatu ez ezik ondarearen jabetza ere eskuz aldatu zen Kolegiata sortzearekin batera.

Kostaldeko Santiago Bidean zegoen Ziortza, eta hortxe dago, eta Erdi Aroan Bideko gau-pausaldia egin eta mendialdeari gaina hartzen hasteko ataria izan zen erromesentzat. Kostaldetik nekatuta zetorrenak Ziortzan bildu behar zituen barrualdeko mendialdeari ekiteko indarrak. Bertako elizan otoitz egin, ostatuan atsenden hartu eta gaixorik baldin bazen ospitalean sendatuta ekin ziezaiokeen osterera ere Bideari.

Ziortzako kalonje-elkartea

Mendebaldeko diozesietan Gotzainek beren inguruan gune instituzional indartsuren bat sustatu nahi izan zutenean, sarritan jo zuten Katedraleko kanonigo edo kalonjeak denen arteko bizitza komun arautua antolatzea. Horixe da San Agustinek berak Hiponan egin zuena, eta, halakorik nahi zutenean, hark sortutako Erregelaz baliatu ohi ziren Gotzainak. Horregatik, Ziortzako kalonjeek eredu haren gain moldatutako bizimodua izan zuten.

Hain zuzen Kolegiata sortu eta hurrengo urtean (1380) onartu eta aldarrikatu zituen Kalahorrako Gotzain Gonzalo de Menak Ziortzarako Arauak (*konstituzioak*). Bistan da, horrek egonkortasun hobea eman zion bertako elizgizonen taldeari. Handik hirurogei urtera (1440), ordurarte benefiziatu soilak zirenak kalonje bihurtu zituen Velasco Gotzainak, Arauak berri-tzean. Aita Santuak 1488an berretsi zituen Konstituzio edo arau haiek.

Ziortzako Kolegiataren sorrera-urteak ez ziren Bizkaian eta Euskal Herrian samurrak izan, Ahaide Nagusien arteko liskarrak tarteko zirela, eta Ziortzari ere suertatu zitzaion haien ondorioak jasatea, oinaztarren aldean baitzegoen Ziortza eta bertako gaztelua.

Ziortzako Abadeen artean gogoratzekoak dira Irustatarrak: Diego eta Bernardino XVI. mendean, eta Martin XIX. ean. Diegok eraikin berriak jaso zituen (abade-etxea, ospitalea eta pobrentzako babes-etxea), eta 1526ko suteak kiskali zuen abade-etxea berriro jaso; Bernardinori Gotzainarekin auzitan ibiltzea egokitu zitzaion, Kolegiatako Abadearen eskumenak zaintzeko.

XIX. mendeak berritasun handiak ekarri zituen, batez ere kalonjeen bizimoduan: Arauek ziotenaren kontra, kalonje bakoitzari bere gisara bizitzeko eskubidea aitortu zitzaion (etxe eta jatordu elkarturik gabe, alegia), eta 1841 ean Ziortzak Kolegiata izateari utzi zion, parrokia bihurtu zen, eta bertako Abadea Erretore.

Gaur egun aurpegi berritua du Ziortzak bere eraikinetan (1980...): han daude eliza, kalonjeen etxea, dorrea, Ernazimentuko klaustroa, eta b. 1948an Monumentu Nazional aitortua izan zen Ziortza, Bizkaiko beste halako hainbaten artean. 1988az geroztik zisterarrak dira Kolegiata izandakoaren arduradunak, eta eguneroko otoitz eta liturgiarekin janzten dute hango eliza. Zazpi monje dira bertan bizi direnak. 2008an Priore-Etxe izaera aitortu diote Ziortzari zisterarrek.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580